



Ene adiskidea izan nahi duzu?

Eric Battut
(Ikasen itzulpena)

Ulertzen eta kontatzen ikastea

SEKUENTZIA

Helburua: Ipuina ongi ulertzea eta bakarka kontatzeko gai izatea.

MODULUAK	HELBURUAK
1. modulua	Proiektuaren azalpena eta ipuinean sartzea <ul style="list-style-type: none">• Hiztegi berria ulertzea eta gogoan hartzea.• Ipuinaren hastapena ulertzea eta bakarka kontatzeko gai izatea.• Albumaren hastapena 4. orrialdetik 8. orrialdera: gertaerak ulertzea eta gogoan hartzea.
2. modulua	Sagu berde eta otiaren arteko topaketaren lantzea <ul style="list-style-type: none">• Hiztegi berria ulertzea eta aitzineko saioan ikusitakoa gogoratzea.• Albumaren 10 eta 11. orrialdeak: otiarekiko topaketa ulertzea.• Elkarrizketa ulertzea eta beste ikasle batekin antzeztea pertsonaien tokian emanaz.• Bakarka pasarteak kontatzea gai izatea.• Bakarka hastapenetik ipuina kontatzea gai izatea.
3. modulua	Sagu berde eta igelaren arteko topaketaren lantzea <ul style="list-style-type: none">• Hiztegi berria eta aitzineko saioetakoa menperatzea.• Albumaren 12. eta 13. orrialdeak: igelarekiko topaketa ulertzea.• Elkarrizketa ulertzea eta beste ikasle batekin antzeztea pertsonaien tokian emanaz.• Bakarka pasarteak kontatzeko gai izatea.• Bakarka hastapenetik ipuina kontatzeko gai izatea.
4. modulua	Sagu berde eta kameleoiaren arteko topaketaren lantzea <ul style="list-style-type: none">• Hiztegi berria eta aitzineko saioetakoa menperatzea.• Albumaren 14. eta 15. orrialdeak: kameleoiarekiko topaketa ulertzea.


	<ul style="list-style-type: none"> • Elkarrizketa ulertzea eta beste ikasle batekin antzeztea pertsonaien tokian emanaz. • Bakarka pasartea kontatzeko gai izatea. • Bakarka hastapenetik ipuina kontatzeko gai izatea.
5. modulua	<p>Sagu berde eta elefantearen arteko topaketaren lantzea</p> <ul style="list-style-type: none"> • Albumaren 16. orrialdetik 21. orrialdera: topaketa elefantearekin ulertzea. • Hiztegi berria eta aitzineko saioetakoa menperatzea. • Elkarrizketa ulertzea eta segida asmatzea, pertsonaien intentzioak asmatuz. • Bakarka pasartea kontatzeko gai izatea pertsonaien tokian emanaz. • Bakarka hastapenetik ipuina kontatzeko gai izatea. • Ipuinaren segida asmatzea eta ikastaldeari proposatzea.
6. modulua	<p>Ipuinaren bukaera lantzea: sagua eta elefantea adiskideak dira.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Albumaren 22. orrialdetik 27. orrialdera: ipuinaren bukaera ulertzea. • Hiztegi berria eta aitzineko saioetakoa menperatzea. • Elkarrizketa ulertzea eta bakarka pasartea kontatzeko gai izatea pertsonaien tokian emanaz. • Bakarka hastapenetik ipuina kontatzeko gai izatea. • Segida asmatzea eta ikastaldeari proposatzea.

MODULUA: ez da saio bakar batean eramateko jarduera gisa ulertu behar. Alabaina, saioak behar bezainbat aldiz errepika daitezke eta beraz, egun batez baino gehiago lant.

Saio hori bitan zatitua da: lehen zatia hiztegiaren irakaskuntzari dagokio, eta erritualen mementoan edo ondotik berehala eginen da; bigarren zatia testuaren ezagutzari eta ulermenari dagokie, egunean zehar berantago eginen da.

Ipuina pasarteka lantzen da. Diaporamak eginak izan dira saioa eramateko urratsez urrats. Piktogramak laguntzen dute ikasleek ulertu dezaten zer egin behar duten fase bakoitzean.

Sekuentziaren denboran, aztarna desberdinak atxikitzen dira: ikasleen marrazkiak, idatziak, argazkiak, bideoak, audio-grabaketak. Ikasle guzietan ez dute beren baitarik ipuin osoa kontatzen lortuko baina bakoitzaren aitzinamendua balioztatuko da.

Moduluak	Sekuentziaren urratsak	Materiala
1	<p style="text-align: center;">Proiektuaren azalpena eta ipuinean sartzea</p> <p>1) <u>Sekuentziaren helburuak</u> ikasleei zehazki aurkezten dizkie irakasleak, erranez: “Ipuin bat elkarrekin landuko dugu, Ene adiskidea izan nahi duzu? Luzaz landuko dugu, ongi uler dezazuen. Bukaeran, lan anitz egin eta gero, bakarrik kontatzen ahalko duzue, osorik.”</p> <p>Ipuina laburbiltzen da: “Sagu berde baten istorioa da. Triste da ez baitu nehor mintzatzeko. Beste saguek, grisek, ez dute nahi adiskide izan sagu berderekin. Orduan egun batez, joaten da adiskide baten bila.”</p> <p>Saioaren helburua: “Ipuin baten kontatzeko, ipuinean gertatzen den guzia ongi ulertu behar da eta gogoan ongi hartu. Gaur Ene adiskidea izan nahi duzu? ipuinaren hastapena landuko duzue.”</p> <p>2) <u>Hiztegia</u> gogoan hartzen ikastea “Sagu berderen ipuinaren hasiera ezagutu baino lehen, denek kutxa ttipi bat irekiko duzue zuen gogoan (kutxa baten irekitzea mimatuz): erranen dugu Ene adiskidea izan nahi duzu? deitzen dela kutxa hori. Irakatsiko dizkizuedan hitz guziak hartan sartuko dituzue.</p> <p>Hitz horien ikastea beharrezkoa da ipuinaren ongi ulertzeko, eta ipuinaren ongi kontatzen lagunduko zaituztetelako.” Ikasgelan ere hitzen kutxa ukanen dugu.</p> <div style="text-align: center;">  </div>	<ul style="list-style-type: none"> - Albuma - Irudiak, ipuinaren hitzak lantzeko eta kutxan gordetzeko - Kutxa bat, albumaren azaleko irudia gainean kolaturik - 1. diaporama - Albumaren 4. orrialdetik 8. orrialde arteko testua

Hitzak irudietan: sagu- triste- mintzatu- musu- adiskide- alportxa- gasna- luzokertxo- lukainkidor xerra bat- bidea- badoa- adiskide- bilatu

Irakasleak irudien kutxaren piktograma afixatzen du erranez: "Irudi hori ikusiko duzuen aldi oro hitz eta erran-molde berriak ikasiko dituzuela jakinen duzue."



*OHARRA: Ene adiskidea izan nahi duzu albumaren **kutxaren argazkia** erabiltzea komeni da.*

Irakasleak saguaren irudia afixatzen du eta erraten du: **Albumean, sagu bat bada. Sagu.**

Hitza errepikarazten die denei eta bizpahiru ikasleei.

Gero, irudia gordetzen du eta hurrei galdegiten die:

"Ireki kutxa zuen memorian. Ikusten duzue saguaren irudia? Egiaztatzen dugu?"

Irudia berriz erakusten du ikasleek hitza erran dezaten bultzatuz.

Ikasgelaren kutxan irudia sartzen du.

Gauza bera egiten du hitz guziekin.

3) Albumaren hastapenaren irakurtzea: **4-8 orrialdeak** →ikus 1. diaporama

Irakasleak piktograma erakusten du eta zer erran nahi duen azaltzen:

Piktograma hau ikusiko duzuelarik, albumaren testua irakurriko dut ilustrazioa erakutsi gabe.

Testua irakurtzen du.






4) Pasartearen kontaketa

Irakasleak piktograma erakusten du eta zer erran nahi duen azaltzen:

Piktograma hau erakutsiko dudalarik, pasartea kontatuko dizuet, ongi uler dezazuen.

Pasartea kontatzen du.



	<p>5) <u>Irudi mentalaren sortzea</u> (ipuinaren "filma") Irakasleak piktograma erakusten du eta zer erran nahi duen azaltzen: Piktograma hau erakutsiko dudalarik, galdeginen dizuet testua entzun eta gero, zer irudi jiten zaizuen burura? Zer izanen da albumaren ilustrazioa?</p> <p>Ikasleei galdegiten die zer izaten ahal den ilustrazioa. (Marraztea galdegiten ahal zaie.) Ondotik, albumaren ilustrazioa erakusten du deskribatzea galdeginez.</p> <p>6) <u>Ikasleen kontaketa</u> lantzea Irakasleak testua berriz irakurtzen du: 4.-8. orrialdeak Ikasleei kontatzea galdegiten die, ilustrazio eta irudien laguntzaz.</p> <p>Piktograma erakusten du eta zer erran nahi duen azaltzen: Piktograma hau ikusiko duzularik galdeginen diot ikasle bati pasarte kontaketa. Nork nahi du bakarka ipuinaren hastapena kontatu?</p> <p>Ausartzen den ikasle bati kontaketa galdegiten dio, besteek entzuten dute. Bukatua duzularik, ikasleak "Bukatu dut"erraten du.</p> <p>Irakasleak piktograma erakusten du eta zer erran nahi duen azaltzen: Piktograma hau ikusiko duzularik galdeginen diot taldeari nork nahi duen kontaketa osatu. Zerbait aiantzi du zuen lagunak? Beste ikasleei osatzea galdeginen die zerbait aiantzia izan bada.</p>	  
<p>2</p>	<p style="text-align: center;">Sagu berde eta otiaren arteko topaketa</p> <p>1) <u>Hiztegia</u> Ikasleek ikusitako hiztegia berriz ikusten dute kutxaren jokoaren bitartez. Istorioaren hastapena kontatzen dute irudien laguntzaz. Irakasleak albumaren hastapena berriz irakurtzen du (4.-8. orrialdeak).</p> <p>Hiztegi berria lantzen dute irudiak erabiliz: norbait topatzea- oti- jauzi egin</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Irudiak hiztegia lantzeko - Albuma - 2. diaporama - Maskak edo marotak:

	<p>2) <u>Pasartearen irakurketa eta ulermena 10-11 orrialdeak</u> → <i>ikus 2. diaporama.</i> Irakasleak testua irakurtzen du eta gero kontatzen. Ikasleei galdegiten die zer izaten ahal den ilustrazioa. Ilustrazioa erakusten die deskribapena landuz.</p> <p>3) <u>Ipuinaren antzeztea</u> Burbuilak dituzten ilustrazioak erakusten ditu erranez: Burbuiletan idatziko dugu pertsonaiek zer erraten duten. Ikasleen proposamenak idazten ditu (beste ikasleekin adostu eta). Maskak edo/ta marrotak aurkezten ditu eta binaka elkarrizketa antzeztea galdegiten die ikasleei. Albuma irakurtzen du hastapenetik (4.-11. or.)</p>	<p>sagua- otia</p>
<p>3</p>	<p style="text-align: center;">Sagu berde eta igelaren arteko topaketa</p> <p>1) <u>Hiztegia</u> Hiztegia berriz ikusten da kutxaren jokoaren bitartez. Irakasleak istorioaren hastapena kontatzea galdegiten die ikasleei, irudien laguntzaz. Albumaren hastapena irakurtzen du (4.-11. orrialdeak) Hiztegi berria lantzen dute: igel- putzu</p> <p>2) <u>Pasarte berriaren irakurketa eta ulermena: 12-13 orrialdeak</u> → <i>ikus 3. diaporama 3</i> Irakasleak testua irakurtzen du eta gero kontatzen. Ikasleei galdegiten die ilustrazioa zer izaten ahal den. Ilustrazioa erakusten du, ikasleen proposamenekin konparatzen dute deskribapena landuz.</p> <p>3) <u>Ipuina antzeztea</u> Burbuilak dituzten ilustrazioak erakusten ditu erranez: Burbuilak osatuko ditugu: zer erraten dute pertsonaiek? Ikasleen proposamenak idazten ditu (taldearekin adostuta). Ikasleek pasartearen elkarrizketa antzezten dute binaka (maskekin edo marrotekin).</p>	

	<p>Ipuinaren hastapenetik antzezten dute, irakasleak narratzailearen rola hartuz.</p>	
4	<p style="text-align: center;">Sagu berde eta kameleoiaren arteko topaketaren lantzea</p> <p>1) <u>Hiztegia</u> Hiztegia berriz ikusten da kutxaren jokoaren bitartez. Irakasleak istorioaren hastapena kontatzea galdegiten die ikasleei, irudien laguntzaz. Albumaren hastapena irakurtzen du (4.-13. orrialdeak) Hiztegi berria lantzen dute: kameleoi- desagertzen da</p> <p>2) <u>Pasarte berriaren irakurketa eta ulermena: 14-15 orrialdeak</u> → ikus 4. diaporama Irakasleak testua irakurtzen du eta gero kontatzen. Ikasleei galdegiten die zer izaten ahal den ilustrazioa. Ilustrazioa erakusten du, ikasleen proposamenekin konparatzen dute deskribapena landuz.</p> <p>3) <u>Ipuina antzeztea</u> Burbuilak dituen ilustrazioa erakusten du erranez: Burbuilak osatuko ditugu: zer erraten dute pertsonaiek? Ikasleen proposamenak idazten ditu (taldearekin adostuta). Binaka pasartearen elkarrizketa antzezten dute (maskekin edo marrotekin) . Ipuinaren hastapenetik antzezten dute, irakasleak narratzailearen rola hartuz.</p> <p>4) <u>Ipuinaren segida asmatzea</u> Ikasleei galdegiten die: Zer pasatuko da gero? Nor topatuko du saguak? Binaka emanen zirezte asmatzeko eta proposamenak konparatuko ditugu. Binaka marrazten edota idazten dute beren proposamena. Talde bakoitzak bere proposamena irakurtzen (edo erakusten?) du.</p>	
5	<p style="text-align: center;">Sagu berde eta elefantearen arteko topaketaren lantzea: elkarrekin egoten dira</p> <p>1) Hiztegia berriz ikusten da kutxaren jokoaren bitartez. Irakasleak istorioaren hastapena kontatzea galdegiten die ikasleei, irudien laguntzaz. Albumaren hastapena irakurtzen du (4.-14. orrialdeak)</p>	

	<p>2) Hiztegi berria lantzen dute: aspertua izan- lore- elefante- boz- pozik izan- eskaini- bulta bat</p> <p>3) <u>Pasarte berriaren irakurketa eta ulermena: 16.-20. orrialdeak</u> → ikus 5. diaporama Irakasleak testua irakurtzen du eta gero kontatzen. Ikasleei galdegiten die haien proposamenekin konparatzea, aitzineko saioaren aztarnak erakutsiz (ikasleen proposamenak). Albumaren ilustrazioa erakusten du eta konparaketa osatzen dute.</p> <p>4) <u>Pertsonaien tokian ematea:</u> → Zer pentsatzen du bakoitzak? Burbuila arrosak dituen ilustrazioa erakusten du erranez: Burbuiletan idatziko dugu pertsonaiek zer pentsatzen duten. Ikasleen proposamenak idazten ditu (taldearekin adostuta).</p> <p>5) <u>Kontaketa</u> Irakasleak galdegiten dio taldeari: Nork nahi du istorioa hastapenetik kontatu? Ikaslearen kontaketa osatzen dute besteek.</p>	
6	<p style="text-align: center;">Ipuinaren bukaera lantzea: saga eta elefantea adiskideak dira</p> <p>1) <u>Hiztegia</u> berriz ikusten da kutxaren jokoaren bitartez. Irakasleak istorioaren hastapena kontatzea galdegiten die ikasleei, irudien laguntzaz. Albumaren hastapena irakurtzen du (4.-21. orrialdeak) Hiztegi berria lantzen dute: gris- berde- lotsa- beldur- goxo</p> <p>2) <u>Pasarte berriaren irakurketa eta ulermena: 22.-27. orrialdeak</u> → ikus 6. diaporama 22. eta 24. orrialdeak irakurtzen ditu irakasleak. Ikasleei galdegiten die: Zer izanen da ilustrazioa? Ilustrazioa erakusten du. Ipuinean agertzen diren animalien koloreak konparatzen dituzte. Oharra: denak berdeak ziren orain arte.</p>	

3) Elkarrizketak asmatzea eta antzeztea

burbuilak dituzten ilustrazioak erakusten ditu erranez: **Burbuilak osatuko ditugu: zer erraten dute pertsonaiek?** Ikasleen proposamenak idazten ditu (taldearekin adostuta).

Binaka pasartearen elkarrizketa antzezten dute (maskekin edo marrotekin).

Ipuina hastapenetik antzezten dute, irakasleak narratzailearen rola hartuz.

4) Azken pasartearen irakurketa

Irakasleak azken pasartea irakurtzen du (26. orrialdea) eta ilustrazioa erakusten du.

5) Segida bat asmatzea: Ilustraziotik abiatuz, ikasleei galdegiten die: **Zer pasatuko da gero? Zer egingen dute bi adiskideek elkarrekin? Nora joanen dira? Binaka emanen zirezte asmatzeko eta talde bakoitzak bere proposamena azalduko du.**

Talde bakoitzak bere proposamena azaltzen die beste.